



BALDINTZA TEKNIKO BEREZIEN PLEGUA - ENERGIA ELEKTRIKOA SALTZEKO AGENTE-ORDEZKARIAREN ZERBITZUA

2. agiria. Baldintza tekniko berezien plegua

1. XEDEA

Kontratu honen xedea da merkatuan energia elektrikoa saltzeko agente-ordezkarik bat kontratatzea.

2. KONTRATUAREN XEDE DIREN INSTALAZIOAK

Soberakinak edo "guzti-guztia" saltzeko gaitasuna duten araubide bereziko instalazioak hauek dira:

- Zeanuriko minizentral hidraulikoa. B.4. taldea. (2,588 MW) – sortze purua (autokontsumorik gabe).
- Boluetako minizentral hidraulikoa. B.4. taldea. (4,1 MW) – autokontsumoa soberakinekin.
- Galindo HUAko 1 eta 2 turbinak. B.7.2 taldea. (1,304 + 2,071 MW) – gaur egun autokontsumoan soberakinekin, eta soberakinik gabeko autokontsumoa izatera igaroko dira.
- Zierbena HUAko instalazio fotovoltaikoa. B.1.1 taldea (19,95 kW) – sortze purua (autokontsumorik gabe).
- Laster martxan jarriko diren edo kontratu hau adjudikatu den unean funtzionatzen dauden instalazioak:
 - Beteluri EUTko instalazio fotovoltaikoa (555 kW) – gaur egun autokontsumoan isurketarik gabe, eta aurreikusi da potentzia gehitzea eta modalitatea aldatzea soberakinetara. 925 kW-ko potentzia instalatuko da.
 - Kurkudi minizentral hidraulikoa – 100 kW – autokontsumoa soberakinekin.
 - Carreras minizentral hidraulikoa – 100 kW – autokontsumoa soberakinekin.

Instalazioak lau mota hauetan sailkatuta daude:

- 1. mota: Bolueta
- 2. mota: Zierbena fotovoltaikoa
- 3. mota: Gainerako guztiak
- 4. mota: Galindo HUA – (bi instalazioak)

Kontratuan gehituko diren beste instalazio batzuk egon ahalko dira eta 3. motakoen baldintzak eta prezioak aplikatuko zaizkie.

3. JATORRI BERRIZTAGARRIKO EKOIZPENAREN BERMEAK

Instalazio guztietako jatorri berriztagarriko bermeak, Galindoko instalazioak eta b.7.2 araubideko gainerakoak salbu, agente-ordezkariarentzat izango dira. Kontratuaren adjudikaziodunak eskuragarri izango ditu bere onurarako saltzeko, jabetzari ordainketarik egin behar izan gabe.

4. BONO SOZIALA ORDAINTZEA ETA ARAUTUTAKO BESTE KONTZEPTU BATZUK

Araututako kontzeptuak, hala nola bono soziala eta etorkizunean agertu ahalko diren bestelakoak, elektrizitate-salmentako fakturatik kenduko dira. Hala eta guztiz ere, OMIEren eta sare elektrikoaren finantzaketarako gastuak salmenta elektrikoari lotutako lan-unitateetan sartu beharko ditu.

5. AUTOFAKTURA ETA DAGOKION INFORMAZIOA



Adjudikaziodunak datuak aurkeztu beharko ditu faktura egiteko 1. eranskineko ereduari jarraikiz. Formatua kalkulu-orri irekia izango da eta bertan ikusgai egongo dira egindako lanak. Eta PDF dokumentuak aurkeztuko dira aurrekoarekin batera.

Halaber, instalazio bakoitzeko energia elektrikoa ekoiztearen balioaren gaineko zergaren eta energia elektrikoa ekoizteko ur kontinentalak erabiltzeagatik kanonaren kopuruen eta etorkizunean aurkeztu beharko dituen deklaratu beharreko zenbatekoaren aitorpena aurkeztuko du. Aitorpena aurkezteko aldi bakoitza bukatu baino hiru aste aurretik entregatu beharko ditu aurrekoak. Aurkeztu egin beharko ditu, baita ere, aitorpena aurkeztu ondoren egindako birfakturazioetatik eratorritakoak.

6. KONTRATUAREN IRISMENA (PREZIOEN 1. TAULA)

Kostu gehigarririk gabe, adjudikaziodunak dagozkion erreklamazio guztiak egin beharko ditu instalazioen neurriarekin arazoak izateagatik REEn, I-DEn eta CNMCn

Ordezkaritza-gastuak ez dira kenduko elektrizitate-salmentako fakturetatik; gastu horiek kontratu honekin ordainduko dira.

1. unitatearen prezioa Salmenta elektrikoko lanak. Boluetako minizentral hidraulikoko agente-ordezkaria. 1. MOTA Termino finkoa. Unitate hori prezio finko bat ordaintzeko da. Eta salmentarekin lotutako zeregin guztiak eta ondoren deskribatuko diren beste batzuk.

- Adjudikaziodunak egin beharko ditu izapide guztiak OMIn (Merkatu Elektrikoaren Operadorea), REEn (Espainiako Sare Elektrikoa) eta CNMCn (Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionala) CABB-BBUP izen propioan ordezkatzeko. BBUPk adjudikaziodunari emango dizkio prozesu hori egiteko ahalak eta dokumentuak. Kosturik gabe.
- Adjudikaziodunak bermea egingo du bere kargura REEk eskatutako zenbatekoan zerbitzu-prestazioak iraun bitartean. Kosturik gabe.
- Jabetzak bere bertsiorik onena bidaliko du gainerako instalazioetan egiten duen bezala.
- Unitate horrek ordezkartza-gastu guztiak kontuan hartuko ditu, hala nola sistemaren eta merkatuaren operadorearen ordainketa, beste batzuen artean.
- Soberakin elektrikoaren salmenta-fakturei dagokienez, adjudikaziodunak instalazio bakoitzeko esportazioko energia elektrikoaren salmenta-faktura egingo du. Zerga elektrikoa eta ur kontinentalak erabiltzeagatik kanonaren zerga-oinarria zehaztu beharko dira; baita ere adjudikaziodunarentzat sortutako benetako desbideratzeak.
- Adjudikaziodunak instalazio horretako esportazioko energia elektrikoaren salmenta-faktura egingo du.
- Neurketa-arazoengatik edo bestelako arazoengatik erreklamazioak CNMCra edo REEra.
- Unitate horren unitate-prezioa €/hilabete moduan adieraziko da.
- **Unitate horren gehieneko prezioa 600 €/hilabetean da.**

2. unitatearen prezioa Salmenta elektrikoko lanak. Boluetako minizentral hidraulikoko agente-ordezkaria. 1. MOTA Saldutako energiaren termino aldakorra. Unitate hori esportatutako energiaren arabera zati aldagarri bat ordaintzeko da. Lizitatzailerak bakoitzak hautatu ahal du hilean prezio finko bat ordaintzea edo saldutako energiaren arabera aldagaia ordaintzea edo irtenbide misto bat. Unitate horren unitate-prezioa €/MWh moduan adieraziko da.

3. unitatearen prezioa Adjudikaziodunak agente-ordezkaria gisa jardungo du bakarrik Zierbenako instalazio fotovoltaikorako. 2. MOTA Unitate horretarako ez dira ordainduko ez desbideratzeak, ez eta bigarren mailako erregulazio-bandaren kostuak ere. Gainerakoa 1. unitatearen berdin, baina bakarrik hilean esportatutako energiaren arabera ordainduko da. Unitate horren unitate-prezioa €/MWh moduan adieraziko da eta kobratu ahal du gehienekoa RUREn (azken baliabideko ordezkaria) tarifa izango da. **Unitate horren gehieneko prezioa esportatutako 5 €/MWh izango da.**

4. unitatearen prezioa 1. unitatearen berdin, baina prezio bereizirik ez duten gainerako instalazioetarako (Bolueta, FV Zierbena edo Galindo; gainerako guztiak dira). 3. MOTA **Unitate horren gehieneko prezioa**



izango da 250 €/ hilabetean eta ordezkaturako unitatea.

5. unitatearen prezioa 2. unitatearen berdin, baina prezio bereizirik ez duten gainerako instalazioetarako (Bolueta, FV Zierbena edo Galindo; gainerako guztiak dira). 3. MOTA

6. unitatearen prezioa Adjudikaziodunak agente-ordezkarik gisa jardungo du bakarrik Galindoko bi instalazioetarako. 4. MOTA Unitate horretarako desbideratzeak eta bigarren mailako erregulazio-bandaren kostua ordainduko dira 3. motakoen multzokatze berarekin. Gainerakoa 1. unitatearen berdin, baina bakarrik hilean esportatutako energiaren arabera ordainduko da. Unitate horren unitate-prezioa €/MWh moduan adieraziko da eta kobratu ahalko duen gehienekoa RUREn (azken baliabideko ordezkaria) tarifa izango da. **Unitate horren gehieneko prezioa esportatutako 5 €/MWh** izango da.

7. DESBIDERATZEAK, ZORRO EFEKTUA ETA AURREIKUSPENAK

Desbideratzeak elektrizitate-salmentako fakturretatik kenduko dira.

Bigarren mailako bandaren desbideratzeak ere desbideratze gisa gehituta daude; kontratu honetan ez dira bereizten batzuk eta besteak. Gauza bera gertatzen da etorkizunean egin ahalko diren bereizketekin.

Agente-ordezkariek faktura bidaltzeko entregatuko dituen albaranetan instalazio bakoitzerako agertu beharko dira hilabete horretako desbideratzeak edo eskuratu ahal izan den likidazioa, aurreikuspen indibidualekin eta benetan eskuratu denarekin. Bata beharrezkoa da elektrizitate-salmentako faktura prestatzeko eta bestea ur kontinentalen aprobetxamendu hidroelektrikoaren zerga elektrikoa eta kanona likidatzeko. Desbideratzeen zenbatekoaren barnean sartuko da bigarren mailako erregulazioaren bandaren kostua.

Instalazio bakoitzerako berezitasunak

- A. Zeanuriko minizentral hidraulikoa. Ekoizpena nahiko egonkorra da eta 320 kW inguruko trukaturako potentzia du, salbu eta ur askoko garaietan, 1 MWra iritsi daiteke. Ur askoko garaiak nagusiki urria, azaroa, martxoa eta apirila dira. Ekoizpen hoberena 4,2 GWh izan daiteke.
- B. Boluetako minizentral hidraulikoa. Bakarrik abenduaren 1etik apirilaren 30era arte egoten da martxan gehienez ere eta soilik ur asko dagoenean. Kasu horretan, ez dago historikoki eta zehapenak Zeanuriko minizentral hidraulikoan baino handiagoak izan daitezke. Aurreikusten da zentral horren funtzionamendua gutxi gorabehera 60 egun/urtean izatea. Esportazioa asko aldatu daiteke urtearen arabera, aldiren batean 7 GWh izan daiteke, baina urtean gutxi gorabehera 2-4 GWh artean egoten da.
- C. Galindo. Ez du esportazio-gaitasunik.
- D. Zierbenako fotovoltaikoa, aurreikusi da urtean 20 MWh sortzea.
- E. Carreras eta Kurkudi minizentral elektrikoak, 1200 MWh inguru sortuko dituzte konbinatuta. Ez dago funtzionamenduko historikoki. Normalena da etengabe edo emari-aldakuntzarekin funtzionatzea.
- F. Beteluriko fotovoltaikoa, martxan jarriko diren beste instalazio batzuk daude eta kontsumoa gehituko dute. Eguneko ordu zentraletan soberakina aurreikusi da. Atxikita dagoen araztegiak urteko egun guztietan funtzionatzen du.

Desbideratzeak ordaintzea

Jabetzak instalazio bakoitzeko aurreikuspen bat egingo du Zierbenako instalazio fotovoltaiko txikia (2. mota) salbu. Hori desbideratzeen eta aurreikuspenen ordainketatik kanpo geratzen da.

Metaturako aurreikuspen horrekin, jabetzaren instalazio bakoitzaren desbideratzea bereizita kalkulatu da, agente-ordezkariek soilik instalazio horiek ordezkaturako balitu bezala. Horri esker, jabetza baten instalazio batzuen desbideratzeek beraien kontrako beste desbideratze batzuk konpentsatu ahalko dituzte eta, horrela,



sortutako desbideratzearengatik ordaindu beharreko zehapena gutxituko da.

Eta bukatzeko, instalazio bakoitzari koefiziente murriztaile bat aplikatuko zaio agente-ordezkarari ordaindu beharreko desbideratzeak kalkulatzeko. Koefiziente murriztaile hori da ordainketan aplikatuko dena eta lizitatzailerako bakoitzak kalkulatu beharko du horrekin bermatzen duela, bere zorro-efektuari erreparaturaz gainerako ordezkatuarekin.

Bi koefiziente murriztaile ezartzen dira, bata Boluetako instalaziorako (1. mota), eta bestea 3. eta 4. motetarako.

Hona hemen adibide batzuk.

- XX egunean, eguneko 08 orduan, kalkulatu da ekoizpen metatua 0,8 MWh izango dela. Azkenik, ekoizpen metatua 0,6 MWh izan zen. Suposatu desbideratze horretarako ordaindu beharreko zehapena 16 €/MWh dela.
- Kontuan hartu desbideratzeak ordezkaturako instalazio guztietako multzoaren aurreikuspen metatuaren arabera kalkulatu behar direla eta inolaz ere ez modu indibidualean.
- Suposatu "X" koefiziente murriztailea 1. motako instalaziorako (Bolueta) 0,85 izatea eta gainerakoentzat 0,7.
- Demagun desbideratzearen erdia Boluetako instalazioak sortu zuela.
- Desbideratzearen ordainketa hau izango litzateke:
 - Bolueta: $16 \text{ €/MWh} \times 0,2 / 2 \text{ MWh} \times 0,85 = 1,36 \text{ €}$
 - Gainerakoa: $16 \text{ €/MWh} \times 0,2 / 2 \text{ MWh} \times 0,7 = 1,12 \text{ €}$
 - Modu alikuotoan banatuko dira ordu horretan instalazio bakoitzeko desbideratzearen arabera, edozein zentzutan.
- Zergak eta kanona ordaintzeko agente-ordezkariek instalazio bakoitzari egoztekota zaion desbideratzea adieraziko du, dagokionaren arabera. Jabetzak desbideratzearengatik ordainduko duena eta emaitza fiskala izan daitekeena baliteke sistema horrekin bat ez etortzea. Izan ere, gutxitzen joango da agente-ordezkararen zorro-efektua dela-eta.

Boluetan desbideratzeak ordaintzeko beste koefiziente ezberdin bat ezarri da. Izan ere, bere potentzia handia da gainerako instalazioekin konparatuta eta bere funtzionamendua aldizkakoa da eta urtean ordu oso gutxi ditu.

- **"X" faktore hori 0,85 edo gutxiagokoa izan beharko da** 1. motako instalaziorako (Bolueta).
- **"X" faktore hori 0,7 edo gutxiagokoa izan beharko da** 3. eta 4. motako instalazioetarako.

Kontratuaren adjudikaziodunak fakturarekin batera aurkeztuko du desbideratzearen kalkulua jabetzak egiaztatzen dezan.